

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAREN ETA ARANZADI ZIENTZI ELKARTEAREN ARTEKOA, GERRA ZIBILEAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DESAGERTUTAKOEI BURUZKO IKERKETA EGITEKOA.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko irailaren 26an.

ONDOKOOK BATZARTU GARA:

Batetik, Joseba Azkarraga Rodero jauna, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua, Eusko Jaurlaritzaren izenean (Donostia-San Sebastián 1, Vitoria-Gasteiz, eta IFK: S-4833001-C).

Bestetik, Jose Miguel Larrañaga Bajineta jauna (NAN: 15.089.988-X), Aranzadi Zientzi Elkartearen izenean (herri onurako elkartea; helbidea: Zorroagagaina 11, Donostia; IFK: G20059135).

Bi alderdiok aitortzen diogu elkarri beharrezko lege-gaitasuna badugula konpromisoa hartzeko, geure ardura eskusiboaren pean. Zehaztutako helburua lortzeko, lankidetzarako hitzarmen markoa sinatzea adostu dugu, eta, horretarako, hona hemen egin beharreko

ADIERAZPENAK

LEHENA.- 2002ko abenduaren 12an, sailen arteko batzorde bat sortu genuen, gerra zibilean desagertutako pertsonak aurkitzeko eta identifikatzeko behar diren erabakiak errazte aldera Eusko Jaurlaritzako sailek egindako lanak koordinatzeko.

Ildo horretatik, 2005eko apirilean lankidetzaren hitzarmen bat sinatu genuen Aranzadi Zientzi Elkartearekin, Euskal Autonomia Erkidegoan gerra zibilean desagertutakoei buruz iker zezala.

BIGARRENA.- Egindako lana batzordeari aurkeztu zaio, 2006ko maiatzaren 2an, eta oso balantze positiboa egin da horren gainean. Aranzadi Zientzi Elkarteak 431 eskabideri erantzun die, 68 hilobi aurkitu ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, desagertutako eta fusilatutakoei buruzko informazioa eman dio eskatu duenari, eta 176 grabazio egin ditu, lekukoei, hilobieiei eta hilobietatik gorpuzkinak ateratzeari buruz.

Egindako ikerketarekin lotutako kontsultak eta ekimenak egiten jarraitzen denez, beharrezkotzat jotzen dugu Aranzadi Zientzi Elkartearekin hasitako lankidetzarekin jarraitzea, planteia daitezkeen kontuei erantzuteko.

HIRUGARRENA. Aranzadi Zientzi Elkartearen estatutu-helburuen artean daude, besteak beste, inguruneari eta giza inguruneari buruzko ikerketa tekniko eta zientifikoa egitea —alderdi huts zein aplikatua— eta ezagutza horiek eta egindako ikerketen emaitzak zabaltzea. Horrez gain, bere jarduera-esparru nagusietako bat izan da, eta bada, Antropologia Fisikoa, Arkeologia eta Historia.

Horren ondorioz, egokitzen jotzen dugu beste hitzarmen bat sinatzea, hasitako lankidetzaren areagotzeko, honako hauek kontuan hartuta

KLAUSULAK

LEHENA- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Eusko Jaurlaritzaren eta Aranzadi Zientzi Elkartearen arteko lankidetzarekin jarraitzea, Euskal Autonomia Erkidegoan gerra zibilean desagertutakoei buruzko ikerketaren inguruan planteatzen diren kontuei erantzuna emateko.

BIGARRENA.- Hartutako konpromisoak

Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko Batzordeari egokituko zaio lankidetzaren hitzarmen honen babesean egiten diren jardueretarako jarraibideak eta behar den koordinazioa ezartzea eta gauzapena jarraitzea.

Aranzadi Zientzi Elkarteari egokitu zaio Eusko Jaurlaritzari gerra zibilean gertatutakoari dagokienez laguntzea, informazioa eta aholkua ematea, betiere Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko Batzordeak ezarritako jarraibideei jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoan gerra zibilean desagertutako pertsonen gaineko ikerketaren inguruan planteatzen diren galdera guztiei erantzunak emateko. Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, Aranzadi Zientzi Elkarteak egindako jarduerari buruzko urteko txostena aurkeztuko du; nolahi ere, egin beharreko txosten zehatzak ere egingo ditu.

Lankidetzaren honetatik ondorioztatzen diren lanetarako ez dago aurreikusita inolako ekarpen ekonomikorik, baina, ikerketa-lanen ondorioz ordainketa jakin bat egin beharra badago, dagozkion jarduerak eta izapideak egingo dira.

HIRUGARRENA.- Jarraipen-batzordea.

Gerra Zibileko Hilobi Komunak Ikertu eta Bilatzeko Sailen arteko Batzordeak hitzarmen honetan ezarritakoa sustatu, koordinatu eta horren segimendua egiteko lanak egingo ditu. Orobat, hori egitean sor zitezkeen gorabeherak ikertu eta interpretatuko ditu.

LAUGARRENA.- Indarraldia

Hitzarmen hau sinatzen den egunean hasiko da indarrean, 2010eko abenduaren 31 arte, eta ezer adierazi beharrik gabe ere luzatuko da urteko aldietan, ebazteko hurrengo kasuren bat egon ezean:

- Bi alderdien arteko adostasuna.
- Alderdiren batek Hitzarmen honetan ezarritako edozein klausulak betetzen ez baditu.
- Hitzarmena gauzatzea eragozten edo nabarmen zailtzen duen arrazoirik sortu dela-eta, edozein alderdik hitzarmena suntsitzea erabakitzen badu. Horretarako, berariaz iragarri beharko du haren amaiera, hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.

Hitzarmena suntsitzen bada, hartu dituzten konpromisoak bete beharko dituzte alderdiek hitzarmena suntsitzen den unera arte.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren nondik norakoa eta jurisdikzio eskuduna.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta 2/2000ko Legegintzako Errege Dekretutik —ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena— kanpo geratuko da, haren 3,1 d) artikularen arabera.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da hitzarmena aplikatzerakoan sor daitezkeen auziak epaitzeko eskumenak dauzkana.

Lankidetzeta-hitzarmen hau aldeok irakurri ondoren, bertan esandakoarekin bat gatzela adierazteko, bina kopia sinatzen ditugu, testuaren idazpuruak aipatutako tokian eta egunean.

ELKARTEKO PRESIDENTEA

SEGURANTZA SAILBURUA

Sinatuta: JOSE MIGUEL
LARRAÑAGA BAJINETA

Sinatuta: JOSEBA AZKARRAGA
RODERO